



[www.pixkanakakaskari.org/hazia](http://www.pixkanakakaskari.org/hazia)

**Merkatuko erreferentziak**



Eurostoxx50: **-%12**  
 Ibex35: %1,58  
 Bonoa 10urte: %2,22  
 KPI: %3,0(apirila)

**2022 metatutako emaitza**

**-%1,36**

**Zorroaren banaketa**

**Errenta finkoa** %72,8  
**Err. aldakorra** %21,6  
**Inb. alternat.** %5,6



**Zorua?**

Burtsek lur-hartze leuna izan dute maiatzean, eta IBEXak bigarren hilabetez jarraian errentagarritasun positiboa izan du, nahiz eta aurten irabaziak izan dituen Europako indize bakarra izan.

Erakunde instituzional guztiak 2022-2024 aldirako hazkunde-aurreikuspenak beherantz berrikusten ari dira eta interes-tasei dagokienez, banku zentralak igoerakin jarraitzea aurreikusten da.



**Enpresaren ekarpenak**

Kutxabanken Hitzarmen Kolektiboak enpresak HAZIAN 1988-5-17aren ondoren sartutako bazkidee aktiboen alde hilero ekarpenak egin behar dituela jasotzen du. Egungo hitzarmena, **PK**-k sinatua, 2024ko abendura arte dago indarrean, eta mugaeguneratutakoan, 24 hilabeteko aurreraeragina jaso genuen, 2026ko abendura arte; beraz, ekarpen horiek, gutxienez, ordura arte hitzartuta daude.

Ekarpen horien urteko zenbatekoa VII-A mailaren %6 da (**3.407,28€ 2022rako**), eta hitzarmenean jasotako soldata-berrikuspenekin eguneratzen dira.

**Beraz, 2021etik 2026ra bitartean 20.000€ baino gehiagoko ekarpena egingo zaio bazkide aktibo bakoitzari.**



PK aldizkariaren harpidetza egin dezakezu esteka honetan: <https://pixkanakakaskari.org/aldizkaria>